

Baiona eta Bilboren harremanetaz

Dr. Manex Pagola

Baionako Euskal Museoko Zuzendari ordea
Subdirector del Museo Vasco de Bayona

A ambos lados de la frontera que divide el País Vasco hay dos ciudades a primera vista: Bilbao y Baiona. Las dos cerca del mar, unos pocos kilómetros al interior, las dos con una B al comienzo de su nombre. Las dos bellamente regadas. Las dos grandes centros de comercio en la antigüedad. El Museo Vasco de Baiona se desarrolló gracias al gran respeto y generosidad de los De la Sota.

Euskal Herri osoa zatitzen duen mugari lehen begirada ematean bi hiri: Bilbo eta Baiona. Biak itsasotik barnaxago, doi doia zenbait kilomentrotan, biak lehen hizki berdinez osatuak beren izena erraiteko-B. Bi hiriak biak ederrez urestatuak. Biak aspaldiko komertsio-gune haundi. De la Sotatarrek begirune haundiz eta esku zabalez inguratu zuten Baionako Euskal Museoa.

An overview of relations between two cities with a lot more in common than their initial letter. Located on either side of the French border, just a few kilometres inland from the coast, Bayonne and Bilbao have been major business and trading centres for centuries, and enjoyed intense economic contact in the past. The de la Sota family from Bilbao made an enormous contribution to the development of Bayonne's Basque Museum.

Symposium balios honetan gertatzeak ematen didan poza nahi nuke lehenik agertu, bai eta eskertu honen antolatzaileak Baiona aldeko abots bat honarat deitzeaz.

Nahiz ez naizen historia zehatzean batere moldatua, aitor dut antropologia sozial eta kulturalean Euskal Herriari begira egiten ditudan ikerketa eta asma bideetan maiz dei egiten dutala izaitzekotz Historiaren erakaspén eta emaitzeri. Horregatik maiz gogoan izan dut nolaz den Euskal Herriaren historia hoin berezia, berdín hoin bihurria eta latza aspalditik... Eta iduritzen zait gaur aipatzera noan gaia bezalakoa premia haundikoa dela ikustea lehenik Baiona eta Bilbo aldearen arteko hareman sozio ekonomikoak: Neurtzeko baizik ez balitz ere zendako izan diren lokarri horiek hoin urriak, nekeak eta beharbada hoin berankorrak. Horrek ez baitu erran nahi lehenagotik edo aspalditik ez dela bi hirigune horien artean haremanik batere izan. Bainan nola neurtu horiek zehazki, ikerketa zehatzagorik gabe?

Gu izaitzekotz, historia hurbilagotik ariko gare gisa hortan prudentziaz ere aintzinatzea ez baitugu batere gorde nahi. Eta ez baitute lehenagoko denboretan familia puxant bat edo bertzek elgarrekin eta urrundik izan ditzazketen lotura komertzialek oraiko bizi guzia erakatsi. Nahiz Bilbo eta Baiona, biak itsas berdinari so eta parte bat hortik bizi, ez dugu haatik ahantziko bi hiri horiek, nahi eta ez, bi Estadu puxantekoak direla aspaldi aspalditik, eta hauk biak maiz elkarren aurka ibiliak, biak nahi t'ez bedera nazionalismo itsuen azpiko. Ez dugu ahantziko ere nazionalismoak ekonomia berezi batean hazten balinbadira ere, kultura egoera edo sare berezien suspertzaile eta moldatzaile direla eta ez beti horgo hiritarren egiazko onaren fagoretan; nere uste apalean gaurko euskal nazionalismoaren alde batzu ikusi eta ere ohar berdinak egin ditzazkegu. Bainan dena dela, ez naiz luzeago arituko ikuspegi apal horietarik, gainerat bakoitzak hemen bere iritzi ñabarra izan baitezake hortaz guziaz.

Hemen orain eta zuzenki aipatu behar dutana da zer nolako loturak hautesman ditezken aski berritarik eta doi bat zehazki Baiona eta Bilboren artean. Eta geroari begira hareman horiek jarraipenik ukan ote dezaketén orain denak hoin laster aldatuko diren garai berri hauetan.

Euskal Herri osoa zatitzen duen mugari lehen begirada bat emaitéan- guziz kostaldearen bi puntetan- huna beraz gure bi hiri ezagunak: Bilbo eta Baiona. Biak itsasotik barnaxago, doi doia zenbait kilometrotan, biak lehen hizki berdínaz osatuak beren izena erraiteko-B: Bilbo, B: Baiona. Bi hiriak ibai ederrez urestatuak. Biak aspaldiko komertziogune haundi, bereziki, itsasoko harat hunat eta negozio lanen inguruan.

Oso entzuna da Bilboren izena Baionan, nahiz bien artean 170 kilometro dauden eta denek dakigu duela hogoi eta hamar bat urtetako kilometroak eta oraikoak, autobideen eragina gatik, ez direla batere berdinak, bereziki denbo-

raren aldetik! Baionan Baionesek edo Baionatarrek hobeki erraiteko, aspaldi gogoan izan dute Bilbo hurbilago zutela Bordele baino. Eta bestalde, Baiona eta Bilbo, biak euskal geografia bereziaren baitan kausitzen eta geografia berdintasua dionak erakusten du, nunbait, historio ekonomiko -sozial hurbilaren ahaidetasuna eta nunbait ere kultura orokorraren kidetasun zerbait baino gehiago (teknika, sinesmen, bizimodu eta abarretan...)

Nahiz 1870 ean Bilbok 27. 902 biztanle baizik ez dituen eta Baionak aldiz gehixago:28. 000 biztanle, 1877 etik honarat alde handia hartzen dio Bilbok Baionari bere 32.724 jendeekin, burdin olak muntatzen ari baitira nasaiki orduan Bizkaian. Baina bere ahuleziaren gainetik ere Baionak gaur egun ere, iparraldeko hiri jendetsuena izaiten jarraitzen du, funtsean Bilbok Bizkaian bezala. Hortakotz, hemeretzigaren mendearen azken laurdenetik honarat Baionan gero eta gehiago senditu dituzte Bilboren indar eta ahal industrial berriak. Batez ere, bigarren Karlisten gerratik lekorat, doi doia lau edo bost kilometrotan, Bokale herrian, 1882 an, ideki zituztenean burdin olak Lorraine eskualdeko Homécourt konpainiari esker: Bizkaiko burnia ekai harturik.

Zorigaitzez, gogoak etziren aski apailatuak ez frantses es español Estaduetan itsas hurbiltasun ekonomiko horiek kultura eta politika alorrerat azkarrago erakartzeko! Zorigaitzez ere, mende honen lehen hamarkadetan frantses nazionalismoa berriz ere indarrean jarria zen Alsazia eta Lorraine aldeak berriz eskuratzeko... eta 1914 ean lehertu behar zuen lehen gerla mundial luze eta sarraskitsuak. Horra hor beharbada arrazoi nagusienetarik Baiona sekulan baino gehiago Bordeleri eta Pariseri loturik español Estaduko lau euskal herrialde haurrideeri bizkarrez jartzeko.

Bainan, lehen mundu gerla hori gelditzean, abia dadila pindar berri bat Baiona aldean euskal kulturaren fagoretan adibidez, hala nola Baionako Euskal Museoa bezalako obra bat bidean jartzeko 1922 etik 1930 eko inguruetarar, Bilbok aski laster egiten dio bere opari ederra eraikidura berezi honi: dela jende pribatu edo erakunde publikoen bidez.

Lehenbizikoen zerrendan izenda dezazkegu , besteak beste, Arruetarrak, Alberto, bere margo pollit batekin *Arrantzaria* deitua, berdin Jose "gouache" aberats batekin, *Herriko soinualaria* izendatua. Aldiz Angel de Etchevarrieta batek 200 libera eskainiko ditu 1925 ean. Eta erakunde berezi batzuen artean, nola ez aipa *Bilboko Euskal Museoa* bera Baionakoari egiten dion laguntza gatik. Eta beharbada lehenik bere ereduarena!

Bainan ezin dugu ere ahantzi, mila eta milako bisitariak urtetan Baionako Euskal Museoa ikusi eta miretsi duten obra kurios bat: *Castillo de Muñatones* delakoaren maketa sendoa Bizkaiko Diputazioak Bilbon zuen egoitza nagusitik etorria.

Abando aldea ere ez baita hain urruti Bilboren bihotzetik, nolaz ez orroitu ere horgo seme ospetsu batek-Sabino de Arana y Goiri- Baionako St Louis de Gonzague ikastetxe katolikoan ikasle egon zela Baionako agintari askok hortaz orroimen eta esker laburra izan balinbadute ere askotan. Alta, hori bera ez ote dugu aski azpimarragarri Baiona eta Bilbo aldearen kultur hurbiltasuna altxatzeko ? Nun ez diren kultura bidetan ere muga erroak jartzen artifizialki eta askotan gaixtoki Herrialdeak nola nahizka zatituz!

Garai horietarik hurbil jarriko ditugu ere bi simbolo aski dirdiratsua Baiona eta Bilbo elgarri lotuko dituztenak. Nola ez gogorat ekarri Euskaltzaindiaren sorkuntza, geroztik erakunde ospetsu honek bere adar bat baitauka Baionan berean, Pannecau karrikan, udalak eskainia.

Bestalde, beste bigaren simbolo koloretsu eta indartsua ez ote dugu ere xuri, gorri, eta orlegiz argitzen den gure ikurriña bera, Bilbo aldetik Baionaraino etorria, orai berriki hau ere-ofizialki bezala... Baionako udalaren aldamenen agertzen dena noizbehinka bederen!

Azken denboraldi hau bakarrik aipatuz, ikusten da, berant bada berant eta nahiz aski hurriki, kasik nekez bezala, Baiona eta Bilboren arteko lokarriak dela ekonomian dela kulturaren ez direla halere ezdeusak izan.

Orroitu gaiten ere 1936-37 eko herbeste beltzaren orduak etorri zirenean ere Baionak nolabait bere lurak eta ibai bazterrak Gipuzkoatik eta Bizkaitik ihes joan seme alaben babesgune jarri zituela- tristeki, egia da, erran nahi baita ahal nolaka, eta beraz, ez baldintza hoberenetan...

Urteak euskal eremuetan erdi lasaitzen ari zirela beharbada 1960-1970 eko hamarkadan, Bizkaiko seme ospetsu batzuek- De La Sota tarrek- begirune haundiz eta esku zabalez inguratu zuten Baionako Euskal Museoa. Ez dugu ahantziko ere-guhaur ere lekuko izanez- nola Jean Haritschelhar, oraiko euskaltzainburua museo hortako zuzendari lantsua zenean, Manu de La Sotak, bereziki, eskaini zion museoari bere liburutegi gotor bezain balio haundikoa, zeren hor baitira bilduak eta ordenatuak orai opari hortarik atera hiru mila liburu gaiti, denak aspaldiko Euskal Herritik haste horren oraiko izaerara arte nasaiki mintzo direnak. Zinez ezin estimatuzko emaitza paregabea! Bainan nola ez aipa ere Ramon de La Sota ere, honek ere egin baitzuten ez nola nahizko emaitzak dela liburu dela berdin zenbait margo eder.

Beste sail batean orai, BBV banku famatuaren historia markatzen duena aipatu behar dugu ere. Español Estadia eta beraz gure hego aldeko euskal probintziak europar bide kurutze berrietar hurbiltzean bezalaxe, 1970-1980 eko hamarkadan, huna nun Baionako udala edo Herriko Etxearen saihetsean ikusten ahal den banku etxe puxant hori, denbora batez Basterretchea jauna horren buru eta bihotz nasai ezagutu baigenuen ere.

Ikusten denez, Bilbok eta Baionak elkarren arteko lokarriak sendoago jartzeari hitzemanan dute geroz eta gehiago. Europa berri honen garaian, Baionak ezinago toki hobea behar omen luke hegoalderi begira. Geroak erranen digu haatik nola egiten den hurbilketa berri hori, ala Bordelek bere administrazio sarearen gatik dena bereganatu nahiko duen berriz ere?

Bainan bada, zorionez, Baionan jende suharrik Baionaren euskal nortasun zahar eta berria ere zaindu eta indartu nahi duenik. Ikusiz, adibidez, nola Baionako Komertzio Ganbarak harremanak jarri dituen Ucin bezalako industriarekin, hau Baionako ateetan, Bokalen hain xuxen, idekiko baita.

Ikusi da ere, nola Baionako Euskal Museo berriaren proiektuen finkatzeko horgo Kontserbadore berriak, Baionako udalak eta kultura munduko aditu batzuek dei egin duten ere, besteak beste, Bilboko Euskal Museoko zuzendari andere kartsuari, honen iritzia ere hartzeko.

Ikusten da bereziki Bilbok eta Baionak badutela gizartearen aro berri haue-tan ere izen eta omen. Eta bihar, gure ustea ez da ttipiago izanen. Gure espe-rantza eta nahiak indar bat dira horrarat jotzeko eta kurutzapen horiek oro hobetzeko eta behar den orekan jartzeko ahal bezain laster.